

Hezibidea hartu eta lan egiteko tokia

HAPOren bidez ez da soilik etxebizitza eta ekipamendu publikoen ikuspegitik definitu eta kudeatu hiriaren garapena. Hiri-hazkuntzako ereduak egin duen apusturik garrantzitsuenetakoa izan da izaera ekonomikoko jarduerak garatzeko lurzorua gordetzea, eta, era horretan, udalerrian lanpostuak sortzea ahalbidetzea. Eta hori guztia errealitate historiko bati eusteko helburuarekin, hain zuzen ere, Leioan etxebizitza-lana binomioa bermatzea, betiere, garai batean erabili izan den lo-hiria kontzeptua behin betiko gainditzeko helburuarekin.

Ibarrabarriko Jarduera Ekonomikoen Parkea erreferentzia-puntua izan da apustu horretan. JEP horrek hirugarren sektoreko eta industria sektoreko errealitatea finkatzen du, eta itsasadarreaino hedatzeko aukera ematen du, erabilera adeitsuen nahasketa batekin: bulegoak, tailerrak, pabiloiak... Eremu moderno horretan dago, baita ere, Leioako Udalaren lanbide-heziketako eskaintzaren zati handi bat eskaintzen duen udal eraikina.

Ibarrabarriko JEP horrekin batera, Udondo-Itsasadarrekoa ere gauzatu da, Erandioarekin muga, Ibaizabalen oinean, eta baita ere Amaia eta Santa Anakoak, Getxorekin muga egiten dutenak, Gaztelubide eremuan.

Gune horretan bertan, Ibaiondoko Jarduera Ekonomikoen Parkeak aukera ematen du Cadenas Vicinayko industria-lurrei erabilera berriak emateko, eta, horrela, iragaite adeitsuagoa ahalbidetzen da lurzoru horien eta etxebizitza-gunearen artean. Gainera, jarduerak erabilera publikoko plaza zabal bat aurreikusten du, eta, halaber, lurpeko aparkaleku-eskaintza garrantzitsua finkatutako eremu baterako, eta enpresa-mintegi baten hazia.

Leioan hirugarren sektoreko erabilerarako hainbat eraikin garatu dira, funtsean bulegoak eta saltoki atxikiak, eta guztiek dute kalitate arkitektoniko aipagarria, etxebizitza-guneak apaintzen lagundu dutenak. Horien artean daude Ikea Etxea, hirigunean, eta hirugarren sektorea nagusi den Laubide eremuak; azken horretan daude Artatza Etxea, Avanzada hotela, Gobela, eta beste batzuk. Ingurune hori errotula ezin hobea bilakatu da Basañez auzoaren eta hirigunearen luzapenaren artean, Lekueder pasealekuaren bidez.